

Arratiako Koruak 75. urteurreneko diskoa aurkeztuko dau Areatzan

Arratiako Koruak 75 urte beteten ditu aurten eta martiaren 20an egingo dabe Areatzan tradiziozko doinuak eta atzen urteetako aldaerak batzean dauzan *Agate Deuna eta aldaerak* diskoaren jentearreko aurkezpena. Lehenengo kontzertua barriz, hurrengo egunean eskainiko dabe Areatzako eleizan, 20:00etan. **13. orrialdea**



Gurean be, euskerea gara!


“Euskara gara” lelopean egingo da 24. Korrika, martiaren 19tik 29ra.

Martiaren 27an, bariku goizean, pasauko da 24. Korrika guretik. Usansolotik sartuta, 08:00rak pasauta helduko da Bediara lekukoa eta Arratia zeharkatu ostean, Ubidetik urtengo da Arabarantza eguerdiko 12:00ak aldera. Egunean bertan zein aurreko egunetan dagoz antolatuta Korrikaren inguruko jarduera ugari. **8. orrialdea**



ARTEA

Ailarak, zabalduko hurbil



Lehen Ekomuseoa zana Ailarak Zentro Kulturala izango da oin-dik aurrera. Martiaren 23an egingo da inaugurazio ekitaldia eta publikoarentzako maiatzan espero da zabalduetea. **5. orrialdea**

DIMA

Dimoztarrak ardi moztailen mundialean



Mikel Etxebarria: “Geure sensazioa oso ona izan da ze mundu guztiak ikusi dau zer garen, danak etorri ziran Euskal Herriaz galdetuten; geuretzako hori izan da txapelketako onena”. **19. orrialdea**

M8, antolatu eta burrukatuteko deia

Arratiako Mugimendu Feministak beste behin bete ebazan Igorreko kaleak.

Andra Langilearen Nazinoarteko Egunean, Arratiako Mugimendu Feministak zapalkuntza sistemei aurre egiteko deia zabaldu eban Igorren egindako manifestazioan: “Noraeza, etsipena eta bildurra gailenduten dabizan sasoi honetan ez gara isilik eta otzan geratuko; sistema kapitalista, zisheteropatriarkal, kolonial eta errazisteari aurre egingo deusagu”.

Manifestazioak ez eban lortu oin dala urte batzuk izaten eban jarraipen masiboa baina halanda be, jentetsua izan zan; feminismoaren bidean egiteko eta burrukatuteko asko dagoala erakutsiaz: “Baina ekiteko ardurea ordea ez da bakarrik feministona; instituzinoak, patronala, gizonak... sistema hau betikotuten dozuen guztiak, urgentziaz exijiduten deusuegu, hartu jakokotzuen erantzunkizuna!”. **15., 16. eta 17. orrialdeak**



Literatura txokoa

DÜSSELDORFEKO TXIBATOA

Karl izeneko alemaniar ingeniari erretirauak, jatorrizko herria itxi eta zehazbako Espainia hegoldeko herri idorrean, medikuaren aholkuari jaramon eginik, biriak makaltxu daukaz-ta, bere pentsakera luteruar zorrotz eta arauzale nabariak eraginda, talka egingo dau kultura katolikoa dauan jentete zabar eta legehausleen jokabideagaz. Nazkagarria deritxan jarrrera hori artezte aldera milaka salaketa ipiniko ditu Udaltzaingoaren aurrean, beronek behar leuken betebeharra ordezkatzuz, *Sed lex, dura lex* errepikatzen dauan esakerearen izen eta omenean.

Umorea barreiatzen dau Linazasorok alderik alde, *No me quite pá* letreroa okindegian, kasurako,

eleberri laburtxo honetan, gaurko gizarteko hainbat eta hainbat portaera txar seinalauz, hala nola, feminista eta gayen aldekoa dauko bere burua. Manifara agertu eta koktelak jaurtiten badira bera izango da poliziari hots egiten lehena. Indarkeriaren aurkari gogorra baina alde, "justizia" egin behar bada. Kontraesan argia.

Gainera, ugari dira umore baltzaren ildotik joko dituan pasadizoak, Lourdeseko ugerlekuan itoko dan andre elbarria, uger ez dakian senarra be itota hilgo da emaztea salbau gurean bere burua jaurtinda.

Karl horrek, erronkazale amorratua, justiziaren zentzu garbikoa izanik, herrikide edo auzokoen aurrean tinko eutsiko deutso bere

zuzentasunari, mehatxuak, irainak entzun behar baditu be. Izan be, udaltzain sarjentu zein alkatearen aldetik joakoz larrienak.

Amaieran kezka larria azalduko jaku: demokrazia liberalak ez ete dau hartuko ba iraganeko norabide maltzurrik? Legearen aldetik izanda be, podereari aurre egiteko askatasuna galduz autoritarismoa berrazalduko ete jaku itxikeria eta zabarkerien ondorio usteltzat, haundi-maundien segurtasun berba potoloa aldarri?

Saltu baten irakurteko moduko idazlana dogu, esaldi laburrez osotukoa berau, Linazasorok luma sarkor eta kilikagarria dau-ta ezaugarri.

Dimalferreko zilbakoa



Karlos Linazasoro

Düsseldorfeko txibatoa

Erein, 2025

104 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Martiaren 16tik 22ra
Rodríguez Martínez, Igorre, Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 1547

22:00etatik 09:00etara
Gutierrez (14-20). Amorebieta-Etxano.
Martiaren 23tik 29ra
Traver Ibañez, Bedia, JA. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50 eta 646 830 571

22:00etatik 09:00etara
Ruiz Golvano (21-27). Amorebieta-Etxano.
Martiaren 30etik aprilaren 5era
Ibarrola, Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara
Goiria Montoya (28-3). Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiak egiten.
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Gometza, Ana, Francisco Kortabarria 2. Basauri.
Tel.: 94 449 05 87

Medikuak
Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Igorre eta Zeanuri: 94 600 74 63
Bedia eta Lemoa: 94 600 68 85
Ubide: 945 45 50 17

Zeberio: 94 500 67 95
Udaletxeak
Arantzazu: 94 631 56 89
Artea: 94 673 92 05
Areatza: 94 673 90 10
Bedia: 94 631 42 00
Dima: 94 631 57 25
Igorre: 94 631 53 84
Lemoa: 94 631 30 05
Ubide: 945 45 03 22
Zeanuri: 94 673 91 46
Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17
mankomunitatea@arratia.eus
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea
94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*
Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00
Areatzako Parketxea 94 673 92 79
Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51
kulturetxea@igorre.net
Lemoako Kotxepin Kultur Etxea
kotxepin@lemoa.eus
Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*
Areatzako Notariotza 94 673 92 26
Errota Fundazioa 688 854 543
info@errota.eus
Arratiako Musika Eskola
94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55
3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri
Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.
Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.
3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.
Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.
3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar
Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.
Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.
3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide
Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi orduko behin.
Ubide Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi orduko behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi orduko behin.
* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.
Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.
3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)
Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.
3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao
Zeberiotik Ugaoa. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.
*Basauriraino bakarrik.
Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.
*Artearaino bakarrik.
Ugao Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 16:30, 19:40, 20:40.
Arteatik Ugaoa. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.
Ugao Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.
Igorretik Ugaoa. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.
Ugao Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.
Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.
Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.
La Union 94 427 11 11
A3712 linea. Bilbo-Gasteiz
Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urteten dau.
A3712 linea. Gasteiz-Bilbo
Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urteten dau.
Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60
6A linea. Otxandio-Legutio
Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoen eta jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an.
6A linea. Legutio-Otxandio
Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoen eta jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean.
Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** beginu@beginu.eus. **Webgunea:** www.beginu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@beginu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@beginu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beginu@beginu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketak:** Garbikuzi enpresa (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Ibai Zarrabietia (Arantzazu, Areatza eta Artea) Alejandro Konadio (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituAldizkaria), **Instagram:** [@BegituEus](https://www.instagram.com/BegituEus), **Mastodon:** [@beginu](https://mastodon.social/@beginu), **X:** [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus) **YouTube:** [@BegituAldizkaria](https://www.youtube.com/BegituAldizkaria)

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:

Arantzazu

Areatza

Artea

Bedia

Dima

Igorre

Lemoa

Ubide

Zeanuri

Zeberio



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hau xe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ



Zubiarte Arantzazuko Jubilatua

Arantzazuko Zubiarte jubilaueen alkartea gaituzue, egun 84 jubilauek osotua. Mende barri honen hasikeran hasi ginan martxan eta harrezkero hor izan gara urtero-urteroko zereginetan. "Herri txiki, nortasun handi" litzateke gure leloa; kolore askotako lorak loraontzian. Bidaian joaten gara urtean hiru-lautan Euskal Herriko txoko maiteetara: Larrun, Mirandaola, Igertza... Egungo gai desbardinak jorratzen dabean personak berbaldiak antolatzen doguz: bizi-testamentua, bakardadea, alzheimerra... Antxinako tradizioak gorde: Kanporamartxo, San Adrian... Eta, Gabonetan, mahai eder baten inguruan alkartzen gara urteari agur esateko.

ERETXIA

Korrika: emozinoa eta aldarrikapena



ARRATIAKO AEK

Aurtengo leloa, EUSKARA GARA, komunitadearen izaera zabala eta askotarikoa azpimarratzeko hautatu dogu. Euskerea ez da muga, arnasa baino; zubi lez landu behar da, kohesino sozialerako tresna moduan. Haren esanetan, jatorria edo ezagutza-maila edozein dala be, danontzako lekua dago euskerearen herrian.

Euskaldunon komunitadeari euskerearen ezagutza unibersala zor jako. AEK-KORRIKAK Euskal Herri osoan herritar guztiek euskeraz eroso biziteko eskubidea aldarrikatzen dau, eta, horrerri begira, ezinbestekoak dira hizkuntza-politika eta erreminta ausart eta sendoak, dobakoak eta guztiontzat eskuragarriak, xede daukienak hezkuntzea, transmisinoa eta helduen euskalduntzea bermatzea.

Batetik, gogorarazo gura deusuegu milioi bat euskaldun inguru badirala gaur egun, baina komunitadea handitzen jarraitzeko borondatea dagoala. Bizibarritzen dabilen komunitade aske eta irekia gara. EUSKARA GARA leloak mezu argia dauka: euskereak persona guztiak bildu leikez: Euskerea ez da muga; arnasea da. Zubi moduan landu behar dogu.

Zalantzarik barik, bidelagun izan behar doguz gurera hurreratuten diranak. Baina euskaltegietan ikasten dabiz horreei eskatzen deusegun beste exijidu behar deusagu geure buruari be. Ez dogu euskerearen biziraupena euskera ikasle eta hurrengo belaunaldien esku zertan itxi, guztion baturak ekarriko dau oparotasuna.

Lekuko-hartze bereziak Korrikaren ibilbidean

24. Korrikak 2.180 kilometro egingo ditu eta 3.436 lekuko-

Entzun Korrikaren deiadarra. Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra. Piztu da Korrikaren garra. Badator 24. Korrika! Martiaren 27an Arratiako kaleak hartuko doguz alkarregaz.

aldaketa izango ditu. Inoz baino gehiago, emozinoen gaiari jarraituz, horreetako askok sinbolismoa izango dabe. Aurten hainbat momentu hunkigarri biziko dira bidean:

Errigorak, Korrikaren omen-duak, San Adrianen hartuko dau lekukoa, ekoizle, sarekide eta bidelagunakaz batera. Bizkundera pausu bat gehiago emoteko prest, Euskalgintza-ren Kontseiluak, oster, Azkainen eta Eskirozten eroango dau.

Palestinaganako alkartasuna be presente egongo da, Gas-teizko Bake kalean "Palestina gara" lelopean egingo dan lekuko-hartzean; eta Donostian omenaldia egingo deusie Teresa del Valle antropologoari, haren familia eta bidelagunek lekukoa hartuta.

Korrika amaituta, 12. egunean be, eta hortik aurrera egunero, EUSKARA GARAREN aldarria kontuan hartuta euskerearen eta euskal komunitadearen "alde egitera" deia egiten dogu.

Euskerearen etorkizuna jokoan dago, eta guztion esku dago eragitea, 24. KORRIKA badator, eta danori jagoku euskalzaletasuna lehen lerrora ekartea. Bada unea euskereari bizkunde barri bat emoteko.

Entzun Korrikaren deiadarra. Izan gaitezen dardara, izan gaitezen indarra. Piztu da Korrikaren garra. Badator 24. Korrika! Martiaren 27an Arratiako kaleak hartuko doguz alkarregaz.



LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Eskuaraz
baizik ez
zekiten
haiek...

Zure arazoa da elebi-duna zarela. Horixe da zure arazoa. Ez balego erderarik, ez leukizue botako ez egiteko *patois*, egiteko *cristiano*. Zure arazoa da sekretarioaren, prefetaren, notarioaren hizkuntzara makurtzen zarala zeozer praktikoa lortu gura dozunean: kontrol bat pasau, Uber bat eskatu, zure amaxeari telefonoz deitu. Eta ez deutsut ezer leporatzen, baina pentsau horren gainean, ze zure arazoa da *lyorre* zala euskalduna, eta Igorre, ostera, erdalduna, Urrugne zan moduan euskalduna eta *Urruña* lauburu bat samatik eskegita.

Española eta frantsesa dira gauzak azaltzeko bariante altua eta euskerea harantzahonantz ibilteko modu bat. Ez dinotsut biojantzara ez

joateko gehiago Artean, baina pentsau arean, ia ez garen hasi behar esaten ezetz, gu garela euskaldunak, ez dogula aituten erderarik.

–*Pakete para Igor!*
Eta nik:
–Aurrera.
Eta berak:
–*Un DNI.*
Eta nik:
–Lau bost sei bi sei bi sei hiru jota.

Eta berak apuntau, nire izaki errazializatu euskaldun eder horrek apuntau!

Eta beste batzutan imposible da, ze *vascofobia* sartzean danean ezinezkoa da. Bilboko “M” tabernan esate baterako (egia esan, iniziala ondo dauka ipinita):
–Ebagi bat. mesedez.
–*Ja, ja ja, no te entiendo.*
Eta nik:
–Ebagia –hatzamarrakaz artaziena egiten, eta barrako jenteagaz katxondeoa egiten bera, eta nik azkenean:
–*Macchiato, per favore.*

Hizkuntzak jakitea beti da goalako ondo.

Saldu deutsue hizkuntza bat baino gehiago jakitea ona dala, eta zuk sinistu egin dozu. Azkenean daukazu hizkuntza bata propioa, zurea, maitea, eta beste bat inposatua, erabilgarria, hobeto funtzionatzen dauana besteak baino.

ZERTZEAN



IRADI BARRENETXEA

Gaia jarrita: “Mundua”

- 1**

Mundua pikutara suabe-suabe Israelek Palestina harentzat debalde Trumpek beste misil bat bakearen alde aberatsak gero ta gehiagoren jabe ta faxismoa gorantz oztoporik gabe.
- 2**

Errealitatea jo mugan jarrita erraza egitea norbere kritika gauero notiziak azkar ikusita denok egoten gara aldika-aldika mundua aldatu nahian sofan eserita.
- 3**

Baina, ai, horrek ez du balio laguna kalean barna egin behar da jarduna norberak hartuz bere erantzukizuna igual datorkiguna ez da hain iluna oraingandik aldatuz gure etorkizuna.
- 4**

Eta datozen garai ilunen aurrean individualismoa nagusi denean gure porrotari so egon bitartean ez da ezer lortuko ez, azken finean zapaltzen gaituena suntsitu ezean.
- 5**

Garaipena lortzeko haxe da formula suntsitzea elite guztien kupula baina norbanakoa horren da ahula hortaz ez ezazue ahaztu sekula: kolektiboan dena posible dugula.
- 6**

Baina gero praktika zailagoa klaro nork bere konfort zona beti du nahiago baina horrela ezin biziraun luzaro txipa aldatu behar genuke zeharo “NI”-rik ez baita egongo “GU”-rik ez badago.

BEGI TXINDORRA

BEGITUREN bulegoan gordetan diran aldizkariaren zenbaki zaharrak begiraturen emon dot denporatxoa. 2002, 2003... BEGITU-ren lehen urteak. Orduan bost bat urte baino ez neukazan nik, parkean olgau eta Gusanitos batzuk erosteko 20 zentimo lortzea ziran nire ardura bakarrak. Baina atzera begira horrek, Arratia, Euskal Herria eta BEGITU bera be, zelan aldatu diran ikusi arazo deustie. Ni, inozente, inguruan zenbat gauza gertatuten ziran konturatu barik. BEGITUKO zenbaki zaharrek Egunkariaren zarratzea, Ibarretxe Planaren nondik norakoak, Batasuna eta herri plataformen ilegalizazioa, AEKren kontrako Garzonen erasoak, jeltzaleak eta ezker abertzalekoak aurrez aurre Diman Aberri Egunean...

Gure bailara honetan be, oin idaztea imaginauko ez nebazan notiziak: “Ubiden gasa herri guztira zabalduko da”, “Arantzazuko bide guztiak asfaltauta egongo dira”... Akordu ahul asko be bueltau jataz burura orduko argazki zaharrak ikusita. Olabarri auzoa barriztuteko lanak, Kultur Etxe eta saihesbide bako Igorre. Zelango oroitzapenak! Iban Mayoren lehenengo urte profesionalak, Luis Prietoren Athletic-era bueltea, Alex Txikon bere lehenengo zortzimilakorako prestatuten... Arratiar famauak bakarrik ez, zuetako askoren argazkiak be, danak gazte-gazte. Zelango esperientzia! Eta zelango barreak egin doguzan bulegoan! Egingo dogu zenbaki zaharren erakusketa bat ala?





Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bildosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkoitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakaia
T. 94 631 50 39
Hilegieta Zentiloa: 900
R.P.S. 20/06

ARRATIA, ZEBERIO

Zabalik dago UEMAren Salto! udalekuetan izena emoteko aukerea

2008 eta 2011 urte bitartean jaiotako gaztetxoek emon ahal izango dabe izena txanda bietako baten.



Asier Abrisketa

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak aurtengo udarako be antolatu dauz Salto! udaleku ibiltariak, udalerri euskaldunetako gazteak saretu eta euskearearen inguruan sensibilizetako helburuagaz. Udaleku ibiltariak izango dira, Markina-Xemeinen hasi eta Aulesti eta Berriatuatik pasau ostean, Ondarroan amaituko diranak. Txanda bi egingo dira, bata bagilaren 23tik garagarriaren 1era eta bigarrena garagarriaren 3tik 11ra. Izena labur.eus/salto2026 estekan emon daiteke martiaren 31ra arte. Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Igorre, Zeanuri eta Zeberio 2008 eta 2011 urte

tartean jaiotakoek emon ahal dabe izena. Atzen urteetan, euskerearen erabilerearen gainbeherearen harira, euskerearen inguruan herritarrak konzientziateko eta sensibilizetako ekimenak dira UEMAren ildo nagusia, euskearearen arnaguneetan fokatuta. Holan, arnaguneak giltzarri dirala sinistuta, “gazteei euskerearen normalizazino prozesuan daukien garrantzia ikusiarazo” gura jakie Salto! udalekuen moduko ekimenakaz. Aisialdi eta euskal kultureagaz lotutako egitarau erakargarri honegaz, “euskerez bizi diran gazteak inertziatik konzientziarako saltua emotea eta horregaz efektu biderkatzailea sortzea” da helburua.

ARTEA

Martiaren 23an egingo da Ailarak-en inaugurazino instituzionala

Jente-aurreko inaugurazinoa maiatza aldera aurreikusten da, Musiktopa tabernea zabalduteagaz batera.



Asier Abrisketa

2022ko aprilaren 2an erre zanetik zarratuta egon ostean, lehen Ekomuseoa zana Ailarak Zentro Kulturala bihurtutako obrak badagoz amaituta. Oin, BEGITUK urtailean aurreratu ebanez, martiaren 23an egingo da Ailarak-en inaugurazino instituzionaleko ekitaldia. Publiko orokorrarentzako barriz, maiatza aldera zabaldutea espero dala aurreratu dau BEGITUN Gorka Beitia Arteako zinegotziak. Izan be, Musiktopa tabernearen lizitazinoa martiaren 13an onartu zan baina hainbat tramite egin behar dira oindino.

Bizkaiko Foru Aldundiko eta Arratiako udaletako ordezkariak, herriko alkarteak eta askotariko euskal artistak izango dira martiaren 23ko ekitaldiko konbidauak. Honeek Arratiako Musika Eskolearen egoitza, Gorbeialderen turismo gunea eta eregi diran beste espazioak ikusteko aukerea izango dabe. Arratiako Musika Eskolako irakasleek egingo deutsee harreea Ailarak-en konbidauetara, txalaparta doinuakaz eta jarraian aureskua jantzauko dau Arantzarteko jantzari batek. Zentroko gunea eta txoko desbardinak ezetutera pasau aurretik, Korta eraikinean

Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahalhun Nagusiak eta Alberto Intxaurraga Arteako alkateak berbea hartuko dabe eta Ane Han abeslariak pieza bat joko dau. Gero hasiko da bisitea eta gunea desbardinak ezetu bitartean, Gontzal Mendibil kantetan, Jorge Islaren obra artistikoa, argazkiak, Maurizia eta Leonen piezak, Kepa Junkerak emondako obra eta piezak, Garazi Navas kantetan eta beste artista batzuen lanakaz gozatzeko aukerea izango dabe konbidauak. Amaitutako, mokadutxoak zerbitzauko da maiatzetik aurrera tabernea izango dan espazioan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gitxieneko 1.500 euroko soldatea helmugeagaz, greba orokorrera

Sindikatuak martiaren 17rako deitu dabe greba orokorrera, “aberastasuna banatutako, soldata hobetu” lelopean.

Asier Abrisketa

ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuak deituta, Hego Euskal Herrian greba orokorra egingo da martiaren 17an. Euskal sindikatuaren aldarrikapen nagusiak bi dira: Lanbide Arteko Gitxieneko Soldatea hemen, Hego Euskal Herrian, ebaztea eta berau gitxienez, 1.500 eurokoa izatea. Honen bitartez,

sektore prekarioenen egoera hobetu eta soldata handituaz, aberastasuna banatu gura dabe sindikatuak. Deialdiari jarraituta, Arratian Greba Batzordea egon da martxan eta egun osoan zehar Arratian burrukea bizirik mantendutako deia egin dabe. Goizean goizetik igarriko da Arratiako industrialdeetan greba orokor giroa. 05:30ean, Cementos Lemonako atean egingo

dira piketeak eta gero, Lemoako industrialdera, Arteakora eta Igorrekora mobiduko dira grebalaria. Horren ostean, Igorren armozau eta piketeak herriguneetara mobiduko dira 09:00ak inguruan eta gero, 10:30ean, Bilbora joateko deia egin dau Greba Batzordeak. Bizkaia mailako manifestazinoa 12:30ean urtengo da Plaza Eliptikotik. 15:00etan, herrietara bueltauta



bazkaldu eta 16:30ean barriro herrietan pikete informatiboak egingo dira eskualde mailako

manifestazinora deitzeako; hau 18:30ean urtengo da Igorrekoko Kultur Etxeko plazatik.

IGORRE

Igorren be proiektauko dira
XXIII. Laburbira ko filmak

Laburbira film laburren zirkuitu ibiltaria martian zehar herriz herri dabil Euskal Herrian eta gurean, Areatza eta Dimaren ostean, Igorren be egongo da euskerazko zazpi laburmetraiak ikusteko aukerea.

Asier Abrisketa

Aurtengoa hogeta hirugarren edizinoa da, euskal zinema-gintzea hauspotutea eta herri-tarrei euskeraz sortutako film laburrak ezetuarazoteko helburua dauka jaialdiak. Lasarte Aretoan izango da emonaldia martiaren 21ean, 20:00etatik aurrera. Emonaldiak Zertu Kultur Elkarateak antolatu ditu Areatza eta Igorreko udalen babesagaz.

Olentzerori eskatu nion
(Amaia San Sebastian, 2025)

Gauero hotel desbardin bat. Atzen narru jotea eta maitalearen begi hutsetara atzen begiradea. Andra bat igesean. Gauero alkarrizketa bardina, denpora milimetratuan. Nazkatu zan egunean euki eben atzen alkarrizketea.

Erreka zoko hortan (Ekaitz Bertiz, 2025)

Aita ohean gaixo dauka Joxepik, Iparragirre baserriko alaba zaharrenak, eta bere gain hartu beharko dau haren egitekoa: kontrabandoan pakete astun bat garraiatzea Frantziako mugaren beste aldera. Gau baltzean, karabineroak ez dira basoak ostenduten dauan arriskurik bildurgarriena...



Geratzen den hori filmaren fotografea.

Fischy (June Asua, 2025)

Kale zikinetan barrena, goseak jota dabilen katu bat arrain baten bila doa, eta badirudi topau dauala altxorra! Usteak erdi ustel, ordea. Kanean, itxurak engainagarriak izan daitezke...

A-Maniki (Elixabet Nuñez, 2025)

Adineko andra bat mundu digitalera ezin egokituz bizi da. Hainbeste, non astiro-astiro desagertuz doan gizartetik...

Geratzen den hori (Aitor Gametxo, 2025)

2011an ama hil ostean, zuzendaria bidaia intimo bateri ekingo deutso haren objektu pertsonalen eta oroitzapenen bitartez. Film labur dokumental honek

dolua eta gaixotasuna eta honek duintasunagaz, zaintzeagaz eta transmisinoagaz daben loturea aztertzen dau.

Orain zer? (Ainhua Urgoitia, 2025)

Bularreko minbizia izan daben andrei ahotsa emonaz, gizar-tean gorputzaren inguruan eregitako hainbat arauk andrei zelan eragiten deusien erakusten dau dokumental hunkigarri honek.

Hortzikara (Ane Cuesta, 2025)

Haginak jausi eta barriz be ateraten ez jakozan neskato baten ama itxaropena galduta dabil. Konturatuten ez dan arren, bere alabearen arazoan jatorria uste baino gertuago dago.

AREATZA

Erdibidean ekimenaren
bigarren atalagaz hasi da
Laminetxe Gaztetxea

Gaztetxetik kalera urteteko helburua dauka bigarren faseak eta 28an, ekimena zarratuteko jaitxo ospatuko da.

Asier Abrisketa

Urrietan emon eban Laminetxe Gaztetxeak oingo kursoko jarduerak gorpuztuko ebazan Erdibidean ekimearen barri. "Herria gaztetxera eta gaztetxea herrira" hurreratutako helburuagaz ipini zan martxan dinamikea. 2025 amaieran, lehenengo atalean, gaztetxean errefujiadu eta feministen berbaldiak, jantza ikastarotxo eta Areatzako historiaren gaineko saioa izan ostean, bigarren zikloari ekin deutsee oin. Zezeilaren 28an Areatzako Harrera Etxekoakaz eta Berritzu zentrokoakaz batu ziran kanean,

herrialde ugaritako janaria probau eta solasalditxo egiteko.

Martiko bigarren hamabostaldirako barriz, beste jarduera bi dagoz programauta. Martiaren 27an Korrika pasauko dala-ta, Laminetxek erositako kilometroa gaztetxearen aldeko aldarriakaz beteteko deia egin dabe hilaren 21erako, 16:30etik aurrera. Martiaren 28an barriz, Erdibidean dinamikako amaierako jaialditxo ospatuko da eskoletan. 18:00etan, Mangual bikoteak binilo-pintxadea egingo dau eta 20:30ean, urtailean bertan behe-ira itxi zan kontzertua berreskurtuko da, Aiert-ena hain zuzen be.



IGORRE

Garbe berrurbanizetako 450.000
euroko inbersinoa egingo dau Udalak

Espaloiak zabaldu, aparkalekuak antolatu, irisgarritasuna hobetu eta zoladurea zein argiteria barriztauko dira.

Asier Abrisketa

Lehendakari Agirren egin moduan, laster hasiko dira Garbe-ko 2 eta 12 portalen bitartean -Eroski dagoan aldean- kalea berrurbanizetako lanak. Igorreko Udalak 458.264 euroko inbersinoa egingo dau eta daborduko lizitauta dagozan

lanak lau hilebetez luzatutea espero da, obrak hasi orduko auzotarrak abisauko ditue. Peatoientzako lekua irabazteko, errepidea eta aparkalekuak bananduten dabezan jardinerak kenduko dira, aparkalekuak baterian errepidera hurbildu eta gaur egungo espaloi estua 4,05 eta 6,10 metrora artean

zabalduta. Beraz, zuzenean aparkauko dira kotxeak errepidetik eta ezingo da barruko aldetik zirkulau.

Peatoi zein autoen zirkulazinoa berrantolatuteaz gainera, Garbeko gunen horretan zoladura guztia barriztau eta gunen al-dapatsuak lehunduko dira, irisgarritasuna hobetute aldera.



Beraz, espaloi zabal eta barribat izango dabe Garbeko auzotarrek, barriztautako landeredi eta eserlekuakaz. Argiteria be guztiz barriztauko da, LED

lanpara barriakaz. Amaituteko, euri-urak drainatzeko sare barria egin eta horniketarako fibrozementuzko hodia meta-lezko bategaitik aldatuko da.

IGORRE

Pakistango egoera soziala azaleratuteko erakusketea Igorren

Igone Mariezkurrenak landutako *Indusen ibaibideak: Himalaiatik Karatxira, Pakistanera begirada sozial bat* erakusketea martiaren 26ra arte egongo da ikusgai.

Asier Abrisketa

Igone Mariezkurrena (Pasai Donibane, 1985) kazetari eta antropologoa lautan egon da Pakistanen eta bertoko paisaia natural zein humanoagaz harrituta, kazetari modura, guzti hori erakusteko beharra sentidu eban. Holan hasi zan lantzean *Indusen ibaibideak: Himalaiatik Karatxira, Pakistanera begirada sozial bat* erakusketea. Himalaiako mendietan, iparraldean, hasi eta Karatxi portu-urietan zentro finantzarioan, hegoaldean, amaituten dan bidaian larrialdi klimatikoa, andra eta LGTBI komunitatearen kontrako indarkeria, urietarako exodoa, erlijinoa, prostituzinoa, droga-menpekotasuna eta agintarien gehiegikeriak moduko gaiak jorratu ditu narrazino, argazki zein pakistandar ugariren testigantzak baliatuta. Hau, martiaren 26ra arte egongo da ikusgai Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

Gaur egun Pakistango herri-

tarrek, Mariezkurrenak probau dauanez, benetan sufriduten dabe larrialdi klimatikoa: muturreko lehortekak eta euriteak, desertifikazioa, uholdeak, glaziarren atzera-egitea... Nazioarteko hainbat behatokik Pakistan ipintzen dabe zaurgarritasun zerrendetan lehena, negutegi efektua sortzean daben gasen isurpen mundialaren % 1 baino gitxiagoren arduraduna bada be. Holan, munduan biztanle gehien dituan bosgarren herrialdea (236 milioi) izanda eta honeen heren bi landa-eremuetan, nekazaritza edo abeltzaintzatik, bizi diranez eragin handia izaten dabil klima aldaketek. Landa-eremuetako baldintzen txarragotzeak urieta-rako exodoa eragin dau eta hau, atzen urteetako joera konserbadore eta fundamentalisteagaz batuta, krisi larri bihurtuten dabil. Betiko lez, nekazari, langile, pobre, andra eta umeak dabiz atzenean hau sufriduten, *sharia* legea inposatuten daben horreek, Karatxiko burdelen jaube diran bitartean.



LEMOA/ZEBERIO

M8aren osteko erakusketak ikusgai dagoz Lemoa eta Zeberion

Lemoan ikusgai dago andra etorkinen gaineko erakusketea eta Zeberion, hilaren 23an zabalduko da herriko andren historiaren gainekoa.



Lemoako Kotxepin Kultur Etxeko erakusketea.

Asier Abrisketa

Andra Langilearen Nazioarteko Egunaren bueltan, erakusketa bi dagoz antolatuta gurean, Lemoa eta Zeberion. *Zeberioko emakumeak historian eta gaur egun* erakusketea martiaren 23tik 26ra egongo da

ikusgai, 18:00etatik 20:00etara, Plazako Ermita Zaharrean. Lemoakoa barriz, *Migrad@s sin fronteras: visibilizando las violencias contra las mujeres inmigrantes en situación administrativa irregular*, zabalik dago Kotxepin Kultur Etxean eta bertan egongo da martia-

ren 26ra arte. Lemoako erakusketan, Mugarik Gabeko Emigratuak Elkarteak 2014tik hainbat nazionalidade eta jatorriko 200 andra lagundu ostean, azaleratutako ondorioak erakusten ditu andra batzuen testigantza eta honeen argazkiak. Ondorioztatu dabenez, EAEn zein Estadu mailan andra horreek daukien oztopo nagusietakoa da “Estaduak berak uko egin deusala aukera eta eskubide-bardintasunean oinarritutako gizartea sendotzeari”. Holan, politika, lege eta administrazio egiturak “kolektibo horren gaineko abusua indartzeko moduan eratuta dagoz” eta andra honek arrisku handiagoa daukie indarkeriak sufriduteko. Holan, kontetan dau erakusketak jasoten dauan testigantzetako batek: “Paper barik bizitea da seme-alabarik ezin ikusiz izatea, bizilekurik ezin aurkitutea eta aintzatan hartu bako lanak onartu beharra”.

ZEANURI

Ate irekien jardunaldia Zulaibarren

Martiaren 25ean egingo da ate irekien jardunaldia; aurretik izena emon behar da <https://labur.eus/zulaibarate> galdetegian.

Asier Abrisketa

Zeanuriko Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegian graduren bat ikasteko interesa dabenek ate irekien jardunaldia izango dabe martiaren 25ean, eguaztena, graduen gainean informau eta instalazioak hurbile-tik ikusi ahal izateko. Arrastiz, 18:00etatik aurrera, egongo dira Zulaibarreko ateak zabalik eta parte-hartzeako izena emon behar da aldeztu aurretik <https://labur.eus/zulaibarate> galdetegian.

Interesa daben ikasleak bakarrik ez, familiak be joan ahal izango dira Zulaibarren emoten diran heziketa-zikloen hezkuntza-eskaintzea, instalazioak eta metodologiak zuzenean ezetutera. Izena emoterakoan, ikasleek



interesa zein ziklotan daukan zehaztu ahal izango dau eta hola, informazio zehatzagoa jaso ahal izango dau. Horrezaz gai-

nera, geroko ibilbide posibleen eta lanbide urtekeren gainean be informauko dau Zulaibarreko lantaldeak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arratia, Ubide eta Zeberion be, euskerea gara!

Martiaren 27an, goizez pasauko da 24. Korrika guretik, Bediatik Ubidera arte.



Asier Abrisketa

“Euskara gara” lelopean egingo da 24. Korrika, martiaren 19tik 29ra. Atharratzen hasi eta Bilbon amaituko da euskarearen aldeko ekimen erraldoia, tartean, lekukoak 2.175 kilometro inguruko bidaia egingo dau Euskal Herriko 460 herri inguru kurutzatuta. Arratia eta Ubide-tik, martiaren 27an pasauko da Korrika. Usansolotik sartuta, Bediara 08:00ak pasauta helduko dala aurreikusi dabe antolatzaileek eta behin Arratiako bailara behetik gora zeharkatuta, Ubidetik urtengo da 11:30ak pasauta Murgia alderantza.

Honeek dira AEK-k aurreratutako ordutegi zehatzak: Bedia 08:13, Lemoa 08:26, Igorre 08:53, Arantzazu 09:27, Artea 09:46, Areatza 09:58, Zeanuri 10:12 eta Ubiden 11:35an. Bide osoan zehar, N-240 errepidetik ibiliko da lekukoa eskuz esku. Baina herri guztietan sartzeaz gainera, Artean sartu eta Zeanuriko urigunetik urten artean kamino zaharretik, BI-3530 errepidetik, joango da furgonetea eta atzean, euskaltzale moltoa. Ibilbidearen zehetasunak Korrikaren aplikazioan zein korrika.eus webgunean dagoz ikusgai. BEGITUK bere webgunean emongo dau jakietara Arratia eta Ubiden kilometro bakoitza nork eta ze ordutan egingo dauan, edizinoa zarratzerakoan guztiz zehaztu barik egolako.

Martiak 18, eguaztena
IGORRE

17:30ean, Korrikarako banderola aldarrikatzaileak egiteko tailerra

Zaztaparrakaz; 19:00etan, Korrikarako merienda eta taberna. Kiñu Gaztetxean.

Martiak 19, eguena
IGORRE

08:00etan, Atharratzeko Korrika hasierako jaira joateko Udaleren laguntzeagaz antolatutako autobusa (bueltea 20:00etan). Izena martiaren 16ra arte Kubulu euskaltegian edo 94 631 56 57 telefonoan emon behar da.

Martiak 21, zapatua
AREATZA

16:30ean, Laminetxe Gaztetxearen kilometroa aldarrikaz beteteko deialdia. Plazan.

Martiak 25, eguaztena
DIMA

18:30ean, Euskara, mundu bat zugandik hurbil udalerrri euskaldunetako herritar erdaldunak euskerara erakarteko saioa (izen emon behar da). Udaletxeko pleno aretoan.

Martiak 26, eguena
AREATZA

17:00etatik 19:00etara, Korrikarako herria apainduteko Ludotekako umeentzako tailerra. Plazan.

IGORRE

16:00etatik 18:00etara, Gure Eskuren Herritu ekimenean izen-emotea Gau Lora alboan; 16:30ean, herria apainduteko mahaiak Kultur Etxean, autobus geltokia, kioskoan eta 105ean; 17:30ean, Korrikaren ibilbidearen entrenamentua eleizatik hasita; 18:00etan, Ao son da nova regueifa dokumentalaren proiektzioa Kultur Etxean; 19:00etan, Igorre Kantuan, Iker Allur eta

herriko trikitilariakaz Donibanetik hasita; 20:30ean, txistorrea Axular Herriko Tabernan.

ZEANURI

17:30ean, Korrikarako herria atonduteko deialdia.

Martiak 27, barikua
AREATZA

19:00etan, Iholdi Beristainen Ni eta nitarrak bakarriketea. Laminetxe Gaztetxean; gero, kalejirea Bilbao anaiakaz.

ARTEA

17:00etan, Bat, bi, hiru disko festa; 19:00etan, sagardotegi-jana eta trikitilariak.

BEDIA

17:00etan, prestakuntzea, ludotekan; 18:00etan, ibilbide txikia; 18:30ean, ZtandaP umorezko bakarriketea Mirari Martiarena eta Idoia Torregaraigaz lokal barrian; 19:30ean, pintxo-potea.

IGORRE

11:00etan, txokolatea Kultur Etxeko plazan; 11:30ean, bertso-regueifa kalejirea Kultur Etxetik hasita.

LEMOA

10:00etan, eskolak antolatutako Korrika Txiki; 18:00etan, txokolatea eskolatan eta pintxo-potea herritik Merhezi taldeak girotuta; 22:00etan, kontzertuak Karabie Gaztetxean: Arnasestu, Aramu eta Mirotz; gero, DJ Matxinada.

ZEANURI

10:00etan, Korrikari harrerea; 10:30ean, Zulaibar, eskolea eta haurreskolako ikasleen topaketa, ikasleen bertsoak eta musikea; gero, txistorrea eta txokolatea; 21:30ean, herri afaria eta Andoni Ollokiegiren kantaldia. Txartelak jubiladuen tabernan martiaren 22ra arte, 15 euro.



ETA ZU EZ ZAITUGU OINDINO SAREAN HARRAPAU? GERO ETA GEHIAGO GARA!

BEGITU
Arratia, Ubide, Zeberio TOKIKOM

-  2.081 JARRAITZAILE
-  432 JARRAITZAILE
-  2.944 LAGUN
-  79 JARRAITZAILE



ZEANURIn Euskara gara

24.korrika *aek*
**Euskara
gara**
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



24.korrika *æk*
**Euskara
gara**
Atharratsetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



BEGITUN Euskara gara



BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen duan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€



- **LAN PUBLIKOAK**
- **UR ETA SANEAMENTU SAREAK**
- **BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**
- **PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**



94 631 72 57



ekin@ekinsl.eus



Igorre (Bizkaia)

BEGITU

TAUPA

XXIII.edizioa
Martxoaren 1etik 29ra

LABURBIRA

Euskarazko film laburren
zirkuitu ibiltaria

Martxoak 21
20:00

LASARTE ARETOA
(IGORRE)

OLENTZERORI ESKATU NION AMAIA SAN SEBASTIAN LARZABAL •
ERREKA ZOKO HORTAN EKAITZ BERTIZ •
FISHY JUNE ASUA OLABARRIA • A-MANIKI ELIXABET NUÑEZ •
GERATZEN DEN HORI AITOR GAMETXO ZABALA •
ORAIN ZER? AINHOA URGOITIA • HOTZIKARA ANE CUESTA •

24.korrika *æk*
Euskara
gara

Athorratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra

Arantzazun
Euskara
gara

Arantzazu

Berbaz eta egitez
DIMAN EUSKARA
GOZANA!

24.korrika *æk*
Euskara
gara

Athorratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



Arratiako Koruak 75 urteak ospatzeko diskoa aurkeztuko dau Areatzan

Arratiako Koruak 75 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko *Agate Deuna eta aldaerak* izeneko diskoa kaleratu dau.



Erredakzinoa

Diskoaren aurkezpena martiaren 20an egingo dabe, goizeko 11:30ean, Areatzako udaletxeko pleno aretoan. Hurrengo egunean, martiaren 21ean, 20:00etan, kontzertua eskainiko dabe Areatzako eleizan, diskoan jasotako kantuak zuzenean entzuteko aukerea emonaz.

Hamarkada luzez eutsi deutso *Agate Deuna* bezperako kantetako ohitureari: hasikeran gizonezkoak bakarrik, gero umeak eta andrak; hasikeran Arratiatik bakarrik eta gero Bilboraino eta inguruko beste herri batzuk zapalduz, urtero

desbardin, baina sortu zaneke helburu bardinagaz, ohiturea mantentzea, hedatzea eta gizarzteagaz batera eraldatzea. Horregaitik 75 urte honeek ospatzeko grabautako diskoari *Agate Deuna eta aldaerak* izenburua ipintea ebatzi dabe, “*Agate Deuna* bezperako oihartzunek gure artean jarraitzen dabelako baina urtero aldaera barriak onartuz, ko-pletan, harmonizazioetan, koruko kideetan, bakarlarietan, beti barietateak gehituz, kantuak aberasteko helburuagaz” adierazo deutso BEGITURI Garazi Navas koruko zuzendariak.

Diskoak 17 pieza batzean ditu. Horreetatik zortzi *Agate*

Deunaren tradizioagaz lotu-tako bertso eta doinuak dira, eta beste batek proposamen instrumental bat egiten dau, betiko melodia eta erritmoak askatasunez garatuz. Gainerakoak Arratiako Koruak urteetan zehar abestu izan dituan erlijino kantuak dira, batzuk aspaldidanik taldearen erreper-torioan egon diranak eta beste batzuk atzen urteotan sartu dituenak. “Kutsu klasikoago bategaz. Ohitura honek bere zuztarrak tradizio paganoetan izan arren, neguaren ostean lu-rra esnatzeko makil kolpeakaz erritmoa markauz, gero sinkre-tismo prozesu baten bitartez kutsu erlijioso bat hartu eba-



lako” gehitu dau zuzendariak.

Diskoan, besteak beste, Salaberri, Aita Donostia, Aita Santa Teresa edo Intxaustiren harmonizazioak entzun daitezke, baita Bach, Schweitzer, Schubert edo Rimsky-Korsakov bezalako konpositoreen piezak be, kasu askotan euskerara egokituta. Bakotxa bere era eta estiloan, idea musikal propioak eta kopia zaharrak tartekatuz, kolore eta aire bereziakaz, a capella (ahots hutsez) edo instrumentuen laguntzeagaz (txistua eta akordeoia). Organoaren laguntze be euki dabe, dana Zeanuriko Andra Mari eleizearen akustika ederrak bilduta. Grabazioaren zati bat han egin dabe.

Arratiako Koruko zuzendariaren berbetan, diskoa talde-lan handi baten emaitza da: “Proiek-

tu hau talde-lan itzela izan da, frutu ezin politago bat emon deuskuna, eta koruko kideek ahalegin handia egin dabe hau danau aurrera aterateko”. Zuzendariak azpimarratu dauenez, egitasmoa jente askoren laguntzeagaz egin ahal izan dabe, eta emaitza “soinuzko auzolan eder bat” izan da, Arratiako eta inguruko herrietako lagunen parte-hartzeagaz sortua.

Izan be, Navasek azaldu dauan moduan, diskoaren helburua tradizioari eustea eta belaunaldi barriei transmititzea da: “Arratiako, inguruko eta urrunagoko bizilagun askoren parte-hartzeagaz adar luzez osotutako sare harmoniatsu bat sortuaz, oin zuei soinuzko auzolan eder hau eskaintzeko. Etkez etxe, makil joka gure oihartzu-nak jasoko dozuezalakoan”.



otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus

**ESKUTIK ESKURA
EGITEN DUGU
HERRIA**

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estru, kontserbak, ardoa,
arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz**
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

24.korrika *æk*
**Euskara
gara**
Atharrazetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



KORRIKA.EUS

ARRATIA · MARTXOAK 27, OSTIRALA

· BEDIA 08:13 · LEMOA 08:26 · IGORRE 08:53 · ARANTZAZU 09:27

ARTEA 09:46 · AREATZA 09:58 · ZEANURI 10:12 · UBIDE 11:35 ·


baserrigintza

Eraiki daigun alkarrengaz
2026 eder bat



Igorreko Industrialdea E2 · 48140 · IGORRE | 94 673 68 29 · 652 774 052
sunaeraiketak@gmail.com | www.baserrigintza.com
 @baserrigintza

BEGITU

**IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN**

• 649 979 115 •

inigoirua@begitu.eus



**Ubiden
Euskara
gara**



24.korrika *æk*
**Euskara
gara**
Atharrazetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra





M8

Zapalkuntza sistemen aurrean, antolakuntzea eta burrukea aldarrikatu eban Arratiako Mugimendu Feministak

“Noraeza, etsipena eta bildurra gailenduten dabizan sasoi honetan ez gara isilik eta otzan geratuko; sistema kapitalista, zisheteropatriarkal, kolonial eta errazisteari aurre egingo deutsagu”.

Asier Abrisketa

Martiaren 8an, Andra Langilearen Nazinoarteko Egunean, Arratiako Mugimendu Feministaren deialdiari jarraituta ehundaka lagunek hartu ebezan Igorreko kaleak, “beste mundu bat feminismotik: borroka eta antolakuntza” leloa harrotasunez aldarrikatuta. Manifestazioak ez eban lortu oin dala urte batzuk izaten eban jarraipen masiboa baina halanda be, jentetsua izan zan; oindino be, feminismoaren bidean egiteko eta burrukateko asko dagoala erakutsiaz. Holan, adin guztietako andre, gizon heldu-gazteek eta umeek kurutzatu eban Igorre feminismoaren alde.

Dima eta Igorreko feministak Torreatik, Lemoa eta Bediakoak eleizatik, Arantzazu, Artea, Areatza eta Zeanurikoak Kiñu Gaztetxetik eta gazteak institututik bloketan urten ostean, danak batu ziran 12:00etan Igorreko Kultur Etxeko plazan, manifestazi-noari ekiteko. Elexalde eta Lehen-dakari Agirretik egin zan martxa morea “gora burruka feminista”, “burrukea da bide bakarra” eta “matxismoak hiltzen gaitu” dea-darren artean. Manifestazio honeetan barria bezain kezkarria dan “gerrarik ez” aldarria be izan zan protagoniste, Ekialde Hurbilean bizi dan egoereak bultzatuta.

Manifestazioa amaituta, Kultur Etxeko plazara bueltan, ekitaldia burutu eban Arratiako Mugimendu Feministako militanteek. Manifestazinoko leloari jarraituta, zapalkuntza sistemei aurre egiteko deia egin eban: “Noraeza, etsipena eta bildurra gailenduten dabizan sasoi honetan ez gara isilik eta otzan geratuko; sistema kapitalista, zisheteropatriarkal, kolonial eta errazisteari aurre egingo deutsagu”. Holan, zapalkuntza tresnak “errealidade materialetan” islatuten dirala

W Ezinbestekoa da gure lana ta borroka iragana oindino idealizae dago-ta heteroarauari patriarkatucri boikota antolatutengabiz eta ordenaren kontra.

Menpekoa doguez disidenteon bizie gure sareak deko beharra ta garrantzie aldarriek zabalduz gaur martxoaren zortzie dagokigune da-ta orain desobedientzie!



Aiala Irurtia



azaldu eban: “Etxebizitzarako sarbidea nork daukan eta nork ez, baliorik bako lanetan nor dabilen eta nor ez, hainbat eskubideren jaube nor dan eta nor ez...”. Atzen urteetan Euskal Herriko Mugimendu Feministak eskuratutako lorpenak be aldarrikatu ebezan, baina oindino, egiteko bidea dagoala gogorarazo: “Ekiteko ardurea

ordea ez da bakarrik feministe-na; instituzinoak, patronala, gizonak... sistema hau betikotuten dozuen guztiak, urgentziaz exijiduten deusuegu, hartu jagotzuen erantzukizuna!”. Amaituteko, martiak 17ko greba orokorrean, martiaren 21eko Errazakeriaren Kontrako Egunean, hilaren 30eko etxe-ko eta zaintzako langileen aldeko

mobilizazinoetan eta hilaren 31n Transen Ikusgarritasuna-ren Egunean parte hartzeako deia be zabaldu eban feministek: “Aliantzak eregi daiguzan, nork bere lekutik, sare sendoak; askotariko zapalkuntzen bitartez sostengatuten dan sistema honeri erantzun deio-gun askotariko gorputz eta burruketatik”.



Ganbara Feministaren kronikea

Ganbara Feminista

Martiaren 7an Ganbara Feministaren 3. edizioa ospatu dogu Arratiako gazte feministok Areatzan, “Arratie antifaxista eta feminista” lelopean.

Eguna, goizeko 10:00etan hasi zan armozu bategaz, ostean 11:00etan tailer bi egon ziran, bata mural margoketa kolektiboa eta bestea *Aliantzak* josiz tailerra. Goizeko gauzakaz amaituteko, 13:00etan *Beste Arratie bat feministik* mahai-ingurua egon zan, Leire Aginaga, Nikole Ziarrusta eta Amaur Irazabalen eskutik, mahai-inguru hau Nagore Cantalejok dinamizau eban.

Ostean, bazkaria egon zan Areatzako plazako arkupeetan, bertan menu begetarianoa egon zan, pikoteoa, platera, postrea eta edaria, sei euroren truke. Arrastiagaz hasteko, 17:00etan bertso-saio musikatua egon zan, hau be arkupeetan, Oihana Arana, Aner Peritz eta Aissa Intxausti bertsolarien eskutik.

19:00etan, Rally Poteoa arkupeetatik hasita, hainbat ekintzagaz. Gaueko ekintzakaz hasteko, 22:00etan ekitaldi feministea egin zan, hitzartze eta Ganbara Feministaren ibilbidea azalduten dauan proiektzino txiki bategaz. Egun feministeagaz amaituteko MJ Ganbara euki genduan Laminetxe Gaztetxean.

Bidaure alkartearen idatzia

Emakume Langilearen Nazinoarteko Egun honetan, Bidaure Elkartean ezku-tuan dagoan errealidade bat aitatu gura dogu: bakarrik gagozan amen lan-baldintzak eta indarkeria modu gisa bizi dogun egiturazko pobretzea.

Lan prekariedadea be indarkeria da

Indarkeriaren ondorioz gure familiei bakarrik eusten deutsegun andrek enplegu prekarioak beteten doguz gehienbat: aldi baterako kontratuak, etenbako ezegonkortasuna eta lanaldi bikotxak, etxean soldata bakar bate-gaz gastuei aurre egin ahal izateko.

Gainera, gehienok ez dogu gure seme-alabei jagokien elikagaien pensinoa jasoten. Argi itxi gura dogu: elikagaien pensinoa erreklametea gure umeen eskubidea da, eta gurasoen legezko betebeharra, eta, halakorik egon ezean, Estuadurena.

Gurasoek erantzukizun hori beteten ez dabenean, guri ez jagokigun zama ekonomiko eta bizi-zama hartu behar dogu geure gain, gure lanaldiak bikoiztuz eta sakrifizioa biderkatuz, bai guretzat, bai gure seme-alabentzat. Ez-betete hori ez da gatazka pribadua: indarkeria ekonomikoa da.

Gurasoek euren gain hartzean ez badabe, Estuaduak bermatu behar dau es-taldura hori, zurztasun edo alarguntza-pensinoakaz modura. Umeen babes-a neurtzeako aukera bikotxik ezin da egon. Tratu desbardintasun hori erabaki politiko eta ideologikoen ondorio da, eta gure seme-alabek ezin dabe bes-teek baino eskubide gitxiago edo babes txikiagoa izan.

Guretzat, kontziliazioa ez da existiduten. Lan merkaduak ez dau gure errealidadea kontuan hartzean. Lan produktiboa eta lan erreproduktiboa gainjartzen dira behar diran laguntza barik, eta gainkarga hori ez da gai pri-badua: gai politikoa da.

Diru sarrera duinak bermatzen ez diranean, laguntzak nahikoak ez dira-nean edo eskuraezinak diranean, zerga diskriminazioak irauten dauanean, etxebizitzea lujo bihurtzen danean, egiturazko indarkeriaz gabiz.

Ama bakar eta langileen pobrezia

Pobreziak ama ezkonbako eta langilearen arpegia dauka. Gure kasuan, baz-terkeria arriskua biderkatu egiten da. Ez dira inguruabar indibidualak, baizik eta gure bizitzen prekarizazioan oinarrituten dan sistema ekonomiko eta sozial bat.

Azterlanek berretsi egiten dabe: ama bakarreko etxeak dira herrialdeko pobretuenak. Errealidade hori ez da kasualidadea, kontuan hartzean ez gai-tuen erabaki politikoen emaitza baizik.

Emakumea subjektu politiko gisa berreskuratzea

Martiaren 8a andra langileen aldarrikapen-jardunaldi gisa sortu zan. Halan-da be, egun hori astiro-astiro husten dabil. Martiaren 8a desitxuratu egin da marketin kanpainen, mezu instituzional hutsen eta burruka feminista kon-



sumo-irudi bihurtuten daben jaubetze sinbolikoen artean.

Emakumea subjektu politiko gisa berreskuratze-ko beharra aldarrikatuten dogu. Aztertuteko, proposatuteko eta eraldatzeko gaitasuna daukan eragile kolektibo gisa. Ez gara eslogan bat. Ez gara publizidade kanpaina bat. Andra langile antolatuak gara, eta egiturazko aldaketak eskatuten doguz.

Inkoherentzia instituzionala

Gaur egun, badi-rudi modan dagoala argazkirako morez jan-ztea. Data honee-tan, bereziki, erakundeak bardintasunaren bermatzaile gisa aurkezten dira.

Halanda be, politika publikoek kontrakoa esaten jarraituten dabe. Diskur-soaren eta praktikearen artean koherentzia falta handia dago. Oindino be justizia eta erraparazino neurriak urrun dagoz ume eta andrentzako.

Ez dogu keinu sinbolikorik behar. Bermeak behar doguz.

Ez dogu kanpainaren irudia izan gura. Gure bizitzetan eragin zuzena dau-kien politikak ebazten diran espazioetan egon gura dogu.

Prekariedadea indarkeria dalako.

Pobrezia indarkeria dalako.

Instituzinoen babesbakotasunak be indarkeria diralako.

Bidaure Elkarteko androk urteko egun guztietan antolatuten eta bu-rrukatuten jarraituko dogu, eskubideak, duintasuna eta justizia soziala defendiduteko.







Areatzako Udala

24.korrika  **Euskara gara**
Atharratzetik Bilbora
2026ko martxoaren 19tik 29ra



Areatzan
Euskara
gara

MENDIA

Zabalik dago Gorbeia Suzien **Skyrace**ko izen-emotea

Martiaren 22ra arte egin daiteke lasterketarako aurreinskripzioa eta zozketea 26an egingo da.



Asier Abrisketa

Urtailean iragarri zanez, urri lehenengoaren 26an jokatuko dira aurten Gorbeia Suzien Zeanuriko mendi jardunaldiko lasterketak. Urtero lez, bate-tik Skyracea 32 kilometroko

luzekera eta 2.400 metroko desnibelagaz, eta bestetik 21K lasterketea, 21 kilometro eta 1.200 metroko desnibelagaz egongo dira jokoan. Lasterketa nagusirako, Skyracerako izen-emotea zabalik dago, martiaren 22ko 23:59ak arte *kronoak.com* webgunean. Dorsalak baino izen-emote gehiago egotea espero danez, onartutakoen zerrendea zozketaz ebatziko da eta emaitzak martiaren 26an egingo dira publiko.

Gero, apirilaren 13an zabalduko da 21K-rako izen-emote orokorra, apirilaren 17ra arte. Aurten 21K lasterketan be egingo da zozketea, apirilaren 19an. Baina gazte arratiarrek, honeei lekua gordetan jakiela bermatuteko, besteek baino arinago emon ahal izango dabe izena, apirilaren 12an izango dabe horretarako aukerea.

TXIRRINDULARITZEA

300 txirrindulari Udaberri Kopako Igorreko lasterketan

Asier Abrisketa

Martiaren 8an ekin eutseen Bizkaiko txirrindularitza eskoletako ume eta gaztetxoek aurten-go Udaberri Kopeari. Lehenengo lasterketea Igorren korridu zan eta parte-hartze ikusgarria izan eban, Leire Aurrekoetxea Arratia Ziklista Eskolako presidentek BEGITUN azaldu dauanez, 301 txirrindulari ibili ziran guztira Olabarriko zirkuituan bueltaka. Ume eta gaztetxoek, familia eta lagunak eta holango probak antolatuteko hain beharrezkoak diran 30 boluntarioek, eguraldiak lagunduta “giro ezin hobean” emon eutseen hasikerea errepideko proben denporaldiari.

Etzekoen artean, Arratia Ziklista Eskolako zein Lemoa Txirrindulari Elkarteko hainbat gaztek hartu eban parte maila desbardinetan. Txikerren kategorietan ez zan Lemoako eta Arratiako taldeetako txirrindularirik egon lehen postuetan baina bai nagusien lasterketan, 2. mailako infantiletan. Hirugarrena Oihan Rekakoetxea zeberioztarra izan zan, gaur egun Galdakaoko taldean dagoana baina pasau dan urtera arte AZEkoa izandakoa. Laugarren postuan barriz, Lemoa Txirrindulari Elkarteko Peio Erdoiza ailegau zan helmugara.



PELOTEA

Binakako finaletik kanpo geratu da Amaia Aldai dimoztarra

Aldaik eta Miriam Arrillagak 22-12 galdu eban finalaurrekoa Agurainen.

Asier Abrisketa

Martiaren 8an banatu ziran Agurainen Emakume Master Cup zirkuituko aurtengo Binakako Txapelketa Nagusiko finalerako txartelak. Finalaurreko biak jokatu ziran bata bestearen atzean. Lehenengoan Olatz Arrizabalaga eta Arrate Bergara urten ziran garaile, 22-14, Ainhua Ruiz de Infante eta Nora Mendizabalen kontra. Bigarrenetan barriz, Alize Sagardui eta Enara Gaminde, Amaia Aldai eta Miriam Arrillagaren kontra nagusitu ziran, 22-12. Holan, ebatzita geratu da martiaren 22an Eibarreko Astelenan jokatu dan finala: Arrizabalaga-Bergara eta Sagardui-Gaminde.

Aldai-Arrillaga eta Sagardui-Gamindek ligaxkea puntutara bardinduta amaitu baeben be, finalaurreko partiduan ez zan oreka hori ikusi, irabazleak partidua osoan mantenu ziran-ta aurretik. Halanda be, Aldaik BEGITUN azaldu dau partidua “gogorra” izan zala: “Eurak gu

baino hobeto ibili ziran eta ezin izan genduan finalerako txartela lortu”. Sagardui eta Gaminde gazteek ez eban opari bat be egin eta beteranoak saiatu eta saiatu ibili arren, partidua erdian zortzi tantuko aldea izanda, 11-3, sano gatz egin jakien Aldai eta Arrillagari hurbildutea.

Euskal Ligako txapeldun
Binakako Txapelketa Nagu-

siko finalaurrekoaren bezperan, Aldai eta Gamindek Euskal Ligako finala jokatu eban Arrasaten, Arrizabalaga eta Bergararen kontra eta honetan bai, Aldai eta Gamindek eroan ebezan txapelak. Set bira jokatu zan partidua eta Aldai-Gaminde bikoteak 10-3 eta 10-6 irabazi eban, garaipen garbia eta Aldaik kontauta, “oso ondo jokatu”.



PELOTEA

EHko Kluben Arteko Txapelketako azpitxapeldun izan dira Meabe eta Rekalde II

Txumuluxuetako pelotariak 10-8 eta 10-2 galdu eban Erreterriakoen kontra.



Asier Abrisketa

Martiaren 8an Amorebieta IV. pelotalekuan jokatu zan Euskal Herriko Kluben Arteko Txape-

lketako gizonezko nagusien 1. mailako finala. Bertan Dimako Txumuluxueta klubeko Iker Rekalde eta Dorkaitz Meabe, Erreterriako EPLE klubeko Jo-

kin Bidezabal eta Mikel Arangurenen kontra aritu ziran eta atzen honeek urten ziran garaile, lehenengo seta 10-8 eta bigarrena 10-2 irabazita. Rekalde II-k BEGITUN kontau eban, Dimakoak irabazten hasi ziran baina aurkariak lortu eban buelte emotea, Dimakoen huts pare bat aprobetxauta: “Beste baten izan beharko da”.

Izan be, lehenengo seta 8-5 irabazten hasi ziran Rekalde II eta Meabe. Defentsan oso ondo hasi eta tantu politak egin ebezala azaldu eban Meabek. Baina berak sakean falta bi egin ostean, Erreterriakoen markagailuan aurreratu eta lehn seta irabazi eban: “Bigarren setean partidutik kanpo egotea eragin euskun eta besteek kontrakoa, lehenengo irabazita animoak altxau jakiezan, gu baino gehiago izan ziran”.

ARDI MOZTEA

Mikel Etxebarria: “Helburua izan da Euskal Herria existuduten dala eta hemen gagozala erakustea”

Euskal Herria lehenengoz lehiatu da Golden Shears munduko ardi moztaille txapelketan, tartean, Mikel Etxebarria eta Janire Artabe dimoztarrak.



Janire Artabe erdian eta Mikel Etxebarria ondoan eskoietara.

Asier Abrisketa

Martiaren 4tik 7ra jokatu zan Zeelanda Barrian Golden Shears munduko ardi moztaille txapelketea. Lehenengo urtez, Euskal Ardi Moztailleen Elkar-tea bertan lehiatu zan Euskal Herria ordezkatuaz, beste 27 nazionalidaderen kontra. Mikel Etxebarria eta Janire Artabe dimoztarrak izan dira selekzioaren partaideetako bi Jose-

ba Ugalde, Ipar Arrinda, Josu Ekisoian eta Mikel Velascogaz batera. BEGITUK Mikel Etxebarriagaz berba egiteko aukerea izan dau eta sano pozik agertu da esperientziagaz: “Geure sensazinoa oso ona izan da ze mundu guztiak ikusi dau zer garen, danak etorri ziran Euskal Herriaz galdetuten; geuretzako hori izan da txapelketako onena”.

Etxebarriak txapelketeari

ekin orduko BEGITUN kontau ebanez, euskaldunak “bihotza ahoan” eukiela ailegau ziran bertara: “Estadioan ikurriñea ikustea terriblea izan da, danok gagoz emozionauta eta negarrak urtetako puntuan”. Emaizten gaintetik, “taula erditik gorantza ibili gara”, helburu bikotxagaz joan ziran haraino eta dimoztarrek bueltan azaldu dauanez, bete ditue.

Batetik, “Euskal Herria existiduten dala eta hemen gagozala erakustea” izan dabe jomuga eta ardi moztailleen artean sortu daben curiosidadeagaz lortu dabe hau: “Berbaz entzuten euskuen eta danek galdetuten eben ia ze hizkuntza dan hori”. Bestetik, mundu mailako arauakaz moztaille gazteak hezteko esperientzia tope-tan eben eta holan egin dabe. “Nik daukadan ilusinoa da nire seme, iloba edo ezetuten ez dodan baina erakutsi deutsadan gazte bat 20 urte barru final baten ikustea”, inoan Etxebarriak BEGITUN.

MENDIA

Oier Zubeldia eta Ainhua Garikano izan ziran Kolazinoko irabazle nagusiak

Asier Abrisketa

Martiaren 14an jokatu ziran Bediako X. Kolazinoko Mendi Eguneko lasterketak. Dorsal guztiak aspaldi salduta, hamargarren edizinoa euriak markauta egon zan baina horrek ez ebazan inguruko lasterkariak gelditu. Lasterketa nagusian, 24K-n, Oier Zubeldia (02:12:49) eta Ainhua Garikano (02:45:00) izan ziran irabazleak. Podiuma osotuten egon ziran honeen atzetik Aitor Zunzunegi (02:15:01) eta Beñat Ibañez (02:16:12) batetik, eta Onditz Iturbe (02:48:14) eta Jone Zenitagoia (02:48:34) bestetik.

Lasterketa laburrean barriz, 17K-n, gizonezkoetan Kimetz Aranburu (01:39:24), Iñigo Leiza (01:41:51) eta Iñaki Barrenetxea (01:42:11) izan ziran lehenengoak eta andrazkoen artean, June



Onditz Iturbe, Ainhua Garikano eta Jone Zenitagoia.

Arrizabalaga (02:05:58), Begoña Uriarte (02:21:11) eta Leire Cabo (02:24:40). Kadete eta Jubenilen lasterketea be jokatu

zan eta gazte honeen artean Arnaitz Kortajarena (01:07:48) eta Norah Muzas (01:24:29) urten ziran garaile.

BOLA-JOKOA

Arratiako Komarkala Bola Txapelketako lehen tiraldia Lemoarentzat

Erredakzinoa

Martiaren 7an hasi zan Lemoan Arratiako Komarkala Bola Txapelketea eta lehen tiraldia Lemoak irabazi eban 595 puntu eskuratuta.

Aurreko urteetan Bizkaiko Bola Txapelketa Komarkalean parte hartzean eben talde arratierrek, baina igazko bidea segiduta aurten be Zornotzakotik bananduta Arratia mailan jokatzen hasi dira txapelketea federauta dagozan sei talde arratierak: Lemoa, Bargondia (Dima), Elorriaga (Lemoa), Oba (Dima), San Kristobal (Igorre, Artaungo bolalekua-Dima) eta Zeanuri (Aroztegieta bolalekua-Dima).

Datorren zitea Lemoako bolalekuan izango da eta bertan Arratiako Banakako Bola Txa-

pelketea jokatuko da hilaren 28an, arrastiko 16:30ean.

Txapelketea jardunaldi ugartan banatuta dago, martiaren 7tik maiatzaren 30era arte eta jardunaldi guztiak hasiko dira arrastiko 16:30ean hurrengo datetan: martiaren 28an, Lemoan (Arratiako Banakako Txapelketea); apirilaren 18an, Lemoan (Arratiako Binakako Txapelketea); apirilaren 25ean izango da Aroztegieta Arratiako Komarkala Bola Txapelketako bigarren tiraldia; maiatzaren 9an, Oban; maiatzaren 16an, Bargondian; maiatzaren 23an, Elorriagan eta maiatzaren 30ean Artaunen.

Hauxe izan zan sailkapena 1-. Lemoa, 595 puntu; 2-. Elorriaga, 545; 3-. Oba, 537; 4-. Zeanuri 504; 5-. Bargondia, 455; 6-. San Kristobal, 342.



FUTBOLA

Arratia B talde biek irabazi

Erredakzinoa

Andrazkoen Arratia Bk hilaren 14an jokatu eban Ezkurdi A taldearen kontra Igorren eta 7-2 irabazi eban. 20 jardunaldiren ostean 40 puntu ditu Arratia Bk eta bigarren postuan dago, Euskal Ligarako igoera promozinoa jokatze postuan. Datorren partidua, Basauriko Kimuak B taldearen kontra jokatuko dau eguazteen, hilak 18, 20:30ean Urbietan.

Andrazkoen Arratia Ak atsedena izan eban martiko bigarren astegienean. Aurreko partidua etxean jokatu eban Athletic C taldearen kontra eta bana bardindu eban. Arratia lider dago Athletic C-gaz bardinduta eta ligea amaituteko lau partidu baino ez dira falta. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau atzen postuan dagoan Eibar C taldearen kontra hilaren 22an, 12:00etan.

Gizonezkoen Arratia A taldeak hilaren 13an jokatu eban etxetik kanpo Gernika Sporting A taldearen kontra eta 5-0 galdu eban.

25 jardunaldiren ostean 40 puntu ditu Arratia Ak eta seigarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatuko dau Gordexola taldearen kontra hilaren 19an, eguena, arrastiko 18:00etan.

Gizonezkoen Arratia B taldeak hilaren 14an jokatu eban Urbietan Loiola Indautxu A taldearen kontra eta 1-0 irabazi eban. 25 jardunaldiren ostean 23 puntu ditu Arratia Bk eta hamaseigarren postuan dago. Datorren partidua etxetik kanpo jokatuko dau atzen postuan dagoan Galdakao B taldearen kontra. BEGITUREN edizinoa zarratzerakoan zehaztu barik egoan eguna eta ordua.

Lemoako Harrobik hilaren 14an jokatu eban etxetik kanpo Ezkurdi A taldearen kontra eta 3-2 galdu eban. 25 jardunaldiren ostean 41 puntu ditu Lemoako Harrobik eta bigarren postuan dago, igoera postuetan. Datorren partidua Arlonagusian jokatuko dau hirugarren postuan dagoan Ermua Aren kontra hilaren 21ean, arrastiko 18:00etan.

● BERTSOLARITZEA

Hamarkada bateko ibilbidea Regueibertsok

Hamarkada bat bete da Arratia Institutua Galiziako regueifa munduko gazteakaz hartu-emonetan ipini eta bat-bateko bertsoaren inguruko alkartrukea egiten hasi zanetik.

Erredakzinoa

Urteotan hainbat topaketa egin dira, eta aurten barriro be Igorre izango da gazte inprobisatzaileen bilgunea. Antolatzaileen esanetan, aurtengoa ziurrenik atzenengo alkartrukea izango da.

Aurreko urte batzutan Kataluniako glosadoreak etorri badira be, aurten Galiziatik etorriko dira ikasleak: IES do Milladoiro (Ames), IES Antonio Fraguas (Santiago), IES de Sar (Santiago) eta IES Xu-lián Magariños (Negreira) institutuetatik, baita Escola de Regueifa de Carballotik be.

Galiziako gazteak martiaren 25ean ailegetako dira Igorrera. Heldu ostean, alkar ezetuteko dinamikak egingo dabez, eta gauean afari eta musikeaz gozatzeko aukerea izango dabe.

Martiaren 26an, Arratia Institutuko kultur asteko egitarauan parte hartuko dabe, eta han emonaldia eskainiko dabe. Arrastian, barriz, Lasarte Aretoan egingo da eguneko beste ekitaldi nagusia. Han aurkeztuko da Manolo Maseda eta Sechu Sendek sortutako *A o son da nova regueifa* dokumentala. Regueifearen garapenaren eta sustapenaren inguruko lana da. Dokumentala Masedak eta Sendek bultzatutako lan baten emaitzea da, eta regueifearen berbizkundera eta gaur egungo indarra erakusten dau. *A o son da nova regueifa* lanean, Galiziako ahozko inprobisazioaren tradizioa eta atzen urteetan gazteen artean izan dauan susperraldia jasoten dira, hainbat regueiferoren testigantzak

eta ekimen kulturalak batuz. Helburua da regueifea ezetutea eta belaunaldi barrietan daukan transmisino prozesua erakustea.

Aurkezpena arrastiko 18:00etan izango da, eta hainbat eragilek hartuko dabe parte: arratiar bertsolari beterano eta gazteek, institutuko ikasle bertsolariak, Galiziako gazte regueiferoek eta musikariek. Horrezaz gainera, jantzariak eta trikitilariak be izango dira bertan, besteak beste.

Iluntzean, Galiziatik etorritako gazteek AEK-k antolatutako kantu poteoan hartuko dabe parte. Hurrengo egunean, etxera bueltau aurretik, Korrikan parte hartuko dabe Arratia Institutuko gazteakaz batera. Korrikagaz batera, bertso-regueifa ibilaldia egingo da goizez.

Historia

Hasikera baten topaketok Igorren eta Galizian egiten ziran, ikasturte baten leku bietan, baina Katalunia gehitu zanean ikusi zan 3 alkartruke egitea lar zala, eta ebatzi zan urtean leku baten egitea. 2019an, Igorrekoak Kataluniara joan ziran. Ha izan zan Regueibertsok Katalunian egiten zan lehenengo urtea. Hurrengo urtean, 2020an, Euskal Herrian egitea toketan zan. Apirilean ziran egitekoak Igorren, baina konfinamentua ezarri zan eta bertan behera geratu zan. Hurrengo urteko neurri murriztaileakaz be ezin izan ziran egin topaketok. 2022ko apirilean egin ziran topaketak Arratian Katalunia eta Galiziako gazteakaz. 2023an Galizian eroan zan aurrera, 2024an Arratian eta 2025ean barriro Galizian.



Proiektuan parte hartzean daben gazteak Arratia Institutuan.

● BERTSOLARITZEA

Martiaren 20an izango da Igorreko bertsozaleen urteroko zitea

Aurtengo San Josetako bertso-saioan Nerea

Ibarzabal, Txaber Altube, Miren Amuriza eta Joanes

Illarregi izango dira protagonistak.



Asier Abrisketa

Aurtengo San Josetako bertso-saioa martiaren 20an, barikua,

egingo da Igorreko Lasarte Aretoan, 18:00etatik aurrera. Arratiako Bertso Eskoleak urtero antolatuten dauan saiora punta-

puntako bertsolariak konbidau ditu aurten be: Nerea Ibarzabal markinarra, Txaber Altube abadiñarra, Miren Amuriza berriztarra eta Joanes Illarregi leitzarra egongo dira kantetan.

Nerea Ibarzabal lautan egon da atzen hamar urteetan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean eta 2021ean eta 2023an eskuratu eban txapela, 2022an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalista be izan zan. Txaber Altubek birritan irabazi eban Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa eta atzen urteetan Bizkaikoan aritu da, atzen edizinoan finalista be izan zalarik. Miren Amurizak hainbat txapel irabazi ebazan gaztetan eta atzen urteetan, Bizkaiko txapelketetan zein Bertsolari Txapelketa Nagusian faltau ezin dan bertsolaria da. Joanes Illarregi da gazteena, halanda be, 2022an BTNko finalean izan zan eta Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean lautan izan da finalista, 2025ean txapeldunorde be izanda.

● KULTUREA

Kontzertuak eta herri afaria, Udabarria Loran ekimenaren bigarren hamabostaldian

Hilaren 18an Sweet Winds taldeak joko dau eta 27an, Korrika pasetan dan egunean, herri afaria eta Andoni Ollokiegiren kantaldia egongo dira.

Asier Abrisketa

Zeanuriko Udalak bigarren urtez antolatu dau herrian irakurzaletasuna bultzatuteko eta programazino kulturalari bultzadea emateko Udabarria Loran ekimena, oin urte bi egin zan Liburuaren Astatik garatu dan dinamikoa. Martiko lehenengo hamabostaldian Onintza Enbeita, Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruza egon ziran euren lanak aurkeztuten, Etzanderak zeanuriko andra jantzarien taldeak atzen emonaldia egin eban, *Ahizpatasunaren hariak* dokumentala proiektu zan eta 11 Kantu taldeagaz poteo alaia egin zan. Oin, apirileko beste sei jardueri ekin aurretik, jardue- ra bi dagoz antolatuta martiaren bigarren hamabostaldirako.

Lehenengo martiaren 18an, eguaztena, egingo da. Saint Patrick's eguna ospatuteko, Zeanurin bizi diran Rafaël Parejo-Couvert eta Ingrid Kuschick-en proiektu-

tuetako bat dan Sweet Winds taldeak kontzertua eskainiko dau Kultur Etxean 20:00etan eta gero, tabernaz taberna be ibiliko dira. *In the Cetic Path* moduan izentau dabe kontzertua eta Julia Iglesias "Zilan" eta Julen Murgagaz, musika zeltiarra eskainiko dabe. "Ustez zeltikoa dan musikearen atzean musika anglo-saxoia baino ez dago, edo Europa osoko kulturetan dagozan musika doinuak dira. Horregaitik, gure kontzertuak didaktikoak be badira, jenteari, esaterako, azaldu egiten deusagu dana dalako kantearen esangurea edo musika tresnearen jatorria", azaldu eben BEGITURI eskainitako alkarriketan.

Martiaren 27an barriz, Korrika goizean pasau ostean Zeanuriko Korrika Batzordearen laguntzeagaz antolatutako jaittoa egingo da. Herri afarirako txartelak jubila- duen tabernan egongo dira salgai martiaren 22ra arte, 15 euroan. Afalostean barriz, Andoni Ollokiegi-

gi pasaiarrak gitarrea eta mikro- fonoa hartuta euskeraz kantetan ipiniko ditu bertaratutakoak. Bere musikeak rockaren energia eta poparen melodiak buztartuten dauz, maitasuna, gizarte-kritikoa eta umorealango gaiak jorratuta. Bakarlariak disko bi argitaratu dauz, *Bekataria* (2023) eta *Alienauta* (2024), ETB1eko *Bago!az* eta Gaztea Irratiaren *Dida* saioan entzutetsu egin ostean.



Andoni Ollokiegi.

● BAKARRIZKETE

Ana Goitiak *Katana* eskainiko dau Ubiden

Martiaren 21ean, umoregile eta kazetariak 18:30ean egingo dau bakarriketea.



Asier Abrisketa

Andra Langilearen Nazinoarte-ko Egunaren bueltan, martiaren 21erako barre egiteko bakarriketea antolatu da Ubiden. Konbidautako umoregilea Ana Goitia Erkiaga lekeitiarra da eta bere lehenengo umorezko bakarriketea luzea aurkeztuko dau, *Katana*, 18:30ean Ortuzarren. Bertan

argi berba eginda, musikea, matxismoa, lodifobia eta gurasotasunalango gaitiaz barre artean hausnartutera eroango ditu bertaratutakoak. "Ana Goitia intensidade hutsa da: bizitzan gertatzen jakon guztia be handia da eta kontatzeko modua be halakoa dauka. Ohikoak diran gauzetan jarriko dau arrete *Katana* izeneko bakarriketea hone-

tan. Egungo musika eta marketina, *sold out*-aren moda, kontzertuak familian goatzeko moda, matxismoa, lodifobia eta egunerokotasuneko gaiak. Anak barrea, galderak eta zintzotasuna alkartuten diran espazio bat sortzean dau. Bakarriketea zuzena eta zorrotza, katana bat modukoa, esan beharrekoa zehaztasunez adierazoko dauana", dino sinopsiak.

● IPUIN KONTAKETE

Ana Meabek itsasoko istorioak kontauko ditu Kotxepinen

Asier Abrisketa

Martiaren 25ean, Ana Meabe ipuin kontalaria Lemoan egongo da *Itsasoaren berbak* ipuina kontetan. Saioa Kotxepin Kultur Etxean egingo da 18:30ean eta kontaketea, bost eta bederatzi urte inguruko umeentzako dago pentsauta. Gitxi gorabehera, 35 minutuko emonaldia izango da eta umeak, arduradun batez lagunduta joan behar dira saiora. "Itsas oskolak ozeanoetako ber-

bak dakarz zipriztinka, azaleko eta abisal. Marilurren amamak baina, ezin ditu entzun; gor-haizeak berbok ezerez bihurtuten dauz, hosto bihurrien moduan iges egiten deusie. Zer dino itsasoak? Zer gura deusku esan? Zelan jakin ez badogu amama osatuten? Marilur sendabidea aurkitu guran abiatu da laguntza eske; egingo dau bidea, ezetuko dau, ikasiko dau, harrituko da, bustiko da, Itsaso besarkatuko dau, behin, aspaldi baten, amamak egin eban modu berean", dino sinopsiak.



DUNBA

Zeanuriko zientzia txokoa

Zeanuriko eskolako LH5. mailako ikasleak

Gure eskolan zientzia txoko bat dogu. Bertan egutegi zientifiko bat daukagu eta, hilebetero, andra edo gizonezko zientzialari baten bizitza eta lana ikusten dogu. Horrezaz gainera, hilebete horretako zientzialari baten esperimentu bat

egiten dogu. Esperimentu horreek oso dibertigarriak dira eta etxeko materialakaz egin daitezke, beraz, oso errazak dira. Martiaren 11n, Emakume Zientzialarien Eguna, hiru andra zientzialari ospetsuren lanak ikusi genduzan: Francisca Nneke Okeke, Patricia Bath eta Rosalind Franklin. Hareen esperimentuak taldeka egin gendu-

zan, bakotxa material desbardinakaz. Francisca Nneke Okeke Nigerian jaio zan eta magnetismoaren ikerketak egin ebazan. Guk "Txanpon jantzaria" esperimentua egin genduan, txanponak eta imana daukan arkatzagaz. Ikusi genduan zelan txanponak jantzatzen daben magnetismoaren eraginez. Patricia Bath medikua eta iker-tzailea izan zan. Guk "3D esku bat" egin genduan papela-gaz, arkatza eta koloretako errotulagailuak



aurkikuntzek erakusten deuskue zelan sormena, jakin-mina eta lan gogorra alkarregaz doazen. Hori dala-ta, andra zientzialarien lana ospatu eta ezetuarazo behar da, eta guk hareen moduan zientzian parte hartu daiegu. Esperimentuak dibertigarriak dira, errazak, eta gure ikasketea aberasten dabe, eta, batez be, andra zientzialarien lana ospatzen lagunduten deuskue.

erabili-az. Esperimentu honek eskuaren forma 3 dimensinotan ikustea ahalbidetu euskun. Rosalind Franklin DNAREN egitura aurkitu eban zientzialaria da. Guk "Atera DNA zure listutik" esperimentua egin genduan, gatza, ura, jabo-likid-oa, kolorantea, plastikozko basuak eta alkohola erabilita. Gure txistuaren lakin bat hartu genduan eta DNA zer dan modu bisual eta praktikoan ikusi genduan. Esperimentuek erakusten deuskue zientzia ez dala bakarrik labo-rategietan egiten; etxeko gauzakaz be ikasi daiteke. Andra zientzialari honeek oso lan garrantzitsua egin dabe, eta gure bizitza hobetuten lagundu dabe. Guk zientzia txokoa ikasi dogu andra zientzialarien lana ez dala bakarrik historiako liburuetan geratuten; gure ikasketa eta esperimentzietan be badago. Hareen



● AGENDEA

MARTIAK 16
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Apirilaren 18rako Lamino Kirol Klubak antolatutako Txindokira eta sagardotegira joateko urtekerarako izen-emotea zabalik *labur.eus/lamino* webgunean.

ARRATIA/ZEBERIO

Zabalik dago Salto! udalekuetan izena emoteko epea martiaren 31ra arte: *labur.eus/salto2026*.

BEDIA

Lehen sorospenak tailerrera (aprilak 20 eta 27) izen-emotea martiaren 18ra arte. Informazino gunean 16:30etik 19:30era.

Apirilaren 17ra arte, Jaietako Kartel Lehiaketarako proposamenak aurkeztuteko aukerea. Informazino gunean.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

Martiaren 22ra arte, Dimako Jaietako XI. Pelota Txapelketan izena emoteko epea, 688 653 473 telefonoan.

Martiaren 27ra arte, Dimako Gazte Barri jantza taldeak maiatzaren 23an ospatuko dauan 30. urteurreneko ekitaldian jantzari ohiek izena emoteko epea, *gaztebarri@gmail.com*-era idatzita.

IGORRE

Literatura Tailerra. 17:00etan, Gorka Erostarberen *Auzokinak* (Elkar, 2025).

Martiaren 24ra arte, hondakin txikientzako GARBIKER Garbigune Mugikorra. Urbieta parkinean.

Martiaren 19an Atharratzeko 24. Korrika urtekerako jaira joateko autobusean izena emoteko atzen eguna; Kubulu euskaltegian edo 94 631 56 57 telefonoan.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

2026ko Igorreko Jaietako Kartel Lehiaketea martxan. Martiaren 31ra arte aurkeztu ahal dira lanak. Kultur Etxean.

Martiaren 30era arte, Igorreko jaietan txosnea ipinteko eskaerearen dokumentua udaletxeko erregistroan aurkeztuteko epea.

Martiaren 31ra arte, Igorreko Jaietako I. Frontenis Txapelketan izena emoteko epea, *https://labur.eus/fronenisjaiak26* estekako galdetegian. Partiduak maiatzean jokatu dira.

Arratiaren Aste Santuko Futbol Kanpusa. Martiaren 20ra arte emon daiteke izena martiaren 30 eta 31n eta apirilaren 1ean Igorreko Urbieta zelaian egingo dan kanpusean. Izena emoteko 747 452 538 edo 94 631 57 04 telefonoetara deitu edo *cdarratia@cdarratia.com* helbidera idatzi.

Martiaren 26ra arte, *Indusen ibaibideak: Himalaiatik Karabkira, Pakistanera begirada sozial bat*

erakusketea ikusgai. Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelan.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

Andra Langilearen Nazinoarteko Eguna. Martiaren 26ra arte, *Migrad@s sin fronteras: visibilizando las violencias contra las mujeres inmigrantes en situación administrativa irregular* erakusketea ikusgai. Kotxepin Kultur Etxean.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

Dorsalak amaitu arte, maiatzaren 30ean jokatu dan Ubidestroi Trail 2026an izen-emotea zabalik *kronoak.com* webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

Gorbeia Suzien Skyrace-ko aurreinskripzioa zabalik martiaren 22ra arte *www.gorbeiasuzien.eus* webgunean.

Martiaren 22ra arte, Korrika eguneko herri afarirako txartelak salgai 15 euroan. Jubiladuen tabernan.

ZEBERIO

Liburutegia zabalik. Astelehen, eguen eta barikuetan 16:30etik 19:30era, martitzenetan 16:30etik 18:00etara eta eguaztenetan 17:00etatik 20:00etara.

MARTIAK 17
ARRATIA

Greba orokorra. 05:30ean, piketeak



Amatasunaren gaineko umeentzako antzezlanak dakar Lari konpainiak Igorrera

Lari Produkzioak konpainia Maria Urcelay eta Yogurinha Borovak 2019an eratutako *Meri, Mari eta Lari* ikuskizunagaz jaio zan. Bertan genero eta familia eredu desbardinak, eta honeek erabakiteko askatasuna, landu ebezan. *Zaintzaren dantza* antzezlanak jarraipena emoten deutso gaiari, mezua zaintzearen eta amatasunaren eremu desbardinetara zuzenduaz: andrak, erantzukidetasuna, autozaintzea eta inguruaren zaintzea. Antzezlanak martiaren 28an, zapatua, Igorreko Lasarte Aretoan ikusteko aukerea egongo da, 18:00etan.

Meri protagonistea dan istorio honetan, bederatzi hilebetez haurdun egon ostean, ama izango da eta tartean, galdera ugari etorriko jakoz burura. Neska edo mutila izango al da? Zelan heziko dau? Zer izango da koskortuten danean? Zoriontsua izango da? Zelan ikasiko dot nire burua zaintzean? Nork erakutsiko deust? Gai izango al naz ni bakarrik berataz arduratuteko? Nork daroa zaintzearen zama gizartean? Galdera horreeri erantzuna topetako, genero ez-bitarreko bere lagun Mari izango dau al boan eta bere ikuspegi irekia izango dau lagungarri.

Cementos Lemonan, gero Lemoako industrialdea, Arteako industrialdea eta Igorreko industrialdean; 08:30ean, armozua Igorren; 09:00etan, piketeak herrietan; 10:30ean, Bilboko manifestazinora; 15:00etan, bazkaria; 16:30ean, pikete informatiboak; 18:30ean, manifestazinoa Igorreko Kultur Etxetik hasita.

MARTIAK 18
IGORRE

17:30ean, Korrikarako banderola aldarrikatzaileak egiteko tailerra Zaztaparrakaz; 19:00etan, Korrikaraokea, meriendea eta tabernea. Kiñu Gaztetxean.

Zinekluba. 20:00etan, *Memorias de un cuerpo que arde* (Antonella Sudasassi, 2014) pelikulearen proiektzinoa. Lasarte Aretoan.

ZEANURI

20:00etan, Sweet Winds taldearen *In the Celtic Path* kontzertua eta gero, poteoa. Kultur Etxean.

MARTIAK 20
IGORRE

18:00etan, San Josetako bertso-saioa: Nerea Ibarzabal, Txaber Altube, Miren Amuriza eta Joanes Illarregi. Lasarte Aretoan.

Mimika jolasa. Gaztelekuan.

ZEANURI

19:00etan, Kurdistanekin Elkartasuna Ekimeneko kideen eskutik, *Zer gertatzen ari da Rojavan? Herri kurdua eta emakumeen iraultza Sirian* berbaldia. Eguzkiolan.

MARTIAK 21
AREATZA

16:30ean, Erdibidean 2. ataleko ekintzea; Korrikarako prestakuntzea, kilometroa gaztetearen aldeko aldarriakaz bete. Plazan.

20:00etan, Arratiako Koruaren kontzertua eleizan, *Agate Deuna eta aldaerak*.

IGORRE

20:00etan, XXIII. Laburbirako filmen proiektzinoa: *Olentzerori eskatu nion, Erreka zoko hortan, Fischy, A-maniki, Geratzen den hori, Orain zer? eta Hortzikara*. Lasarte Aretoan.

Xake Txapelketea. Gaztelekuan.

UBIDE

18:30ean, Ana Goitiaren *Katana* bakarrikzetea. Ortuzarren.

MARTIAK 22
ARTEA

08:45ean, jubiladu alkartearen ibilaldia Usansolotik Igorrera.

IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Baba Yaga eta sorginkeraren liburua*; 19:30ean, *El agente secreto*.

Gaztelekuko TikTok-a sortzea. Gaztelekuan.

ZEBERIO

09:00etan, Austarri Mendi Taldearen urtekerea Kortaburura (480 m), buzoia ipinteko. Plazatik hasita.

MARTIAK 23
BEDIA

Martiaren 26ra arte, Nathalie Bejarano psikologo eta terapeutaren *Bizitasuna berreskuratuz* tailerrera (aprilak 15, 22, 29 eta maiatzak 6) izen-emotea. Informazino gunean 16:30etik 19:30era.

ZEBERIO

Martiaren 26ra arte, 18:00etatik 20:00etara, *Zeberiko emakumeak historian eta gaur egun* erakusketea. Plazako Ermita Zaharrean.

MARTIAK 24
UBIDE

Apirilaren 7ra arte, hondakin txikientzako GARBIKER Garbigune Mugikorra.



MARTIAK 25
BEDIA

Eleizalde Bediako Jubilatu eta Pentsionisten Elkarteen urtekerea Galdameseko Loizaga Dorreko Auto Klasiko eta Zaharren Museora.

DIMA

18:30ean, *Euskara, munda bat zugandik hurbil* udalerrri euskaldunetako herritar erdaldunak euskerara erakarteko saioa (izena emon behar izan da). Udaletxeko pleno aretoan.

LEMOA

18:30ean, Ana Meaberen *Itsasoaren berbak* ipuin kontaketea. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etan, ate irekiak Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegian.

MARTIAK 26
AREATZA

17:00etatik 19:00etara, Korrikarako herria apainduteko Ludotekako umeentzako tailerra. Plazan.

IGORRE

16:00etatik 18:00etara, Gure Eskuren Herritu ekimenean izen-emotea Gau Lora alboan; 16:30ean, herria apainduteko mahaiak Kultur Etxean, autobus geltokia, kioskoan eta 105ean; 17:30ean, Korrikaren ibilbidearen

entrenamentua eleizatik hasita; 18:00etan, Ao son da nova regueifa dokumentalaren proiektzinoa Kultur Etxean; 19:00etan, Igorre Kantuan, Iker Allur eta herriko trikitilariakaz Donibanetik hasita; 20:30ean, txistorrea Axular Herriko Tabernan.

MARTIAK 27
ARANTZAZU

21:30ean, The Wilsons Organ Trio taldearen kontzertua. Herriko Tabernan.

AREATZA

Korrika. 19:00etan, Iholdi Beristainen *Ni eta nitarrak* bakarrikzetea. Laminetxe Gaztetxean. Gero, kalejirea Bilbao anaiakaz.

ARRATIA/UBIDE

Korrikaren ordutegia: Bedia 08:13an, Lemoa 08:26ean, Igorre 08:53an, Arantzazu 09:27an, Artea 09:46ean, Areatza 09:58an, Zeanuri 10:12an eta Ubide 11:35ean.

ARTEA

09:30ean, jubiladu alkartearen urtekerea Bilboko portura.

Korrika. 17:00etan, *Bat, bi, hiru* disko festa; 19:00etan, sagardotegi-jana eta trikitilariak.

BEDIA

Korrika. 17:00etan, prestakuntzea, ludotekan; 18:00etan, Korrika Txikia; 18:30ean, *ZtandaP* umorezko bakarrikzetea Mirari Martiarena eta Idoia Torregarraigaz lokal barrian; 19:30ean, pinto-potea.

IGORRE

11:00etan, txokolatea Kultur Etxeko plazan; 11:30ean, bertso-regueifa kalejirea Kultur Etxetik hasita.

Jolas libre. Gaztelekuan.

LEMOA

Korrika. 10:00etan, eskolak antolatutako Korrika Txiki; 18:00etan, txokolatea eskoletan eta pintxo-potea herritik Merhezi taldeak girotuta; 22:00etan, kontzertuak Karabie Gaztetxean: Arnasestu, Aramu eta Mirotz; gero, DJ Matxinada.

ZEANURI

Korrika. 10:00etan, Korrikari harrerea; 10:30ean, Zulaibar, eskola eta haurreskolako ikasleen topaketea, ikasleen bertsoak eta musikea; gero, txistorrea eta txokolatea; 21:30ean, herri afaria eta Andoni Ollokiegiren kantaldia.

MARTIAK 28
AREATZA

09:00etan, Areatza-Lamindao-Aroztegieta-Olazabal-San Migel Txiki-Areatza mendi urtekerea, Uparan jubiladuen alkartearen eskutik. Eleizatik urtenda.

DIMA

21:00etan, The Yee-Haws taldearen kontzertua. Herrikoan.

IGORRE

Arte tailerra. Gaztelekuan.

MARTIAK 29
IGORRE

Zinea. 17:00etan, *Goat, como cabras*; 19:30ean, *Tres adioses*. Pelikula proiektzinoa. Gaztelekuan.

KOMIKIA

Jon Pelaez



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK
AUTOA KONPARTIDUTEA
 Leioako campusera doazen Arratiako EHUKo ikasleen bila nabil kotxea eta gastuak konpartiduteko. Telefonoa 690 307 910.

ALOKATZEKO ETXE BILA
 Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bititza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 645 734 344.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ
 Hari's Rock School. Gitarra klaseak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528 telefonora edo idatzi a.harillo.gracia@gmail.com helbidera.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA
 Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerarako. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu: 94 673 70 92.

BIZIKLETEA SALGAI
 Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

LESBIANA EDO LESBIANAGAIEN BILA
 60 urtetik gorako lesbiana eta lesbianagai bila. Edadeko andrea zara eta aisialdirako edota militantziarako espazio ez-hetero baten bila zabiz? Deitu edo bialdu mezua 608 062 592 zenbakira.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN
 Kotxeak sartzeko garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera sanjosetako bertso-saiorako.

2
 Errigorak emondako otzara bana.

Begoña Zabaleta (Artea)
 Garikoitz Etxebarria (Igorre)



Mari Eli Olabarri (Areatza)
 Lorea Igartua (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUk 23 urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Biko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Lehendakari Agirre, 19
 48140 Igortze
 94 631 52 26

Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Bixarra egin eta txakunduten dogu
 Tel. 94 607 78 33
 Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tlf. 94 631 92 00

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

Sabino Arana, 3. 3a
 Igortze 48140 Bizkaia
 94-673-70-87
 609-79-40-54

Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia
 zekutzejateetxea@hotmail.com
 Tel.: 94 631 52 83

CAMPUS ZULAIBAR

ATE IREKIAK: Martxoak 25, 18:00etan



**AUTOMATIZAZIOKO
ETA ROBOTIKA
INDUSTRIALEKO GOI
MAILAKO GRADUA**



**FABRIKAZIO MEKANIKOKO
PRODUKZIOA
PROGRAMATZEKO GOI
MAILAKO GRADUA**



**GIZARTERATZEKO
GOI MAILAKO
GRADUA**



**IZENA
EMAN**



**OINARRIZKO LH
ELEMENTU
METALIKOEN
FABRIKAZIOA**



**OINARRIZKO LH
INSTALAZIO
ELEKTROTEKNIKOAK ETA
MEKANIKOAK**



**MENDEKOTASUN EGOERAN
DAUDEN PERTSONEI ARRETA
EMATEKO ERDI MAILAKO
GRADUA**



**FABRIKAZIO
MEKANIKOKO
DISEINUKO GOI MAILAKO
GRADUA**



**MEKANIZAZIOKO
ERDI MAILAKO
GRADUA**



**INSTALAZIO ELEKTRIKO
ETA AUTOMATIKOKO
ERDI MAILAKO GRADUA**



www.zulaibar.net



94 673 91 16



ZULAIBAR

ARRATIAKO LANBIDE IKASTEGIA